

KANTU-JOLAS TAILERRA



-Hezitzaileentzat-

Badira hogeita bost urte jadanik Berbaro Elkartek euskararen suspertze-lanetan diharduela, batez ere, euskararen erabileran lana eginez eta honetarako espazioak eta baliabideak sortuz.

Gazte arloaren barruan, garrantzi handia du hezkuntza ez-formalak eta horren barruan lantzen diren ekintza eta baliabideek. Hauen artean, kantu-jolasek.

Urteak aurrera joan ahala, eta gizartea aldatzen doan bitartean, kantu-jolasak ere moldatzen, aldatzen, sortzen... joan dira, balioak transmititzeko asmoz: berdintasuna, hezkidetza, talde-lana, hizkuntza...

Horregatik, berebizikoa ikusten dugu bai hezitzaile baita irakasleek ere kantu-jolasen ezagutza handia izatea, hezkuntza formala eta ez-formalaren barnean kokatzen den baliabide gisa, modu egokian erabiltzeko.

HELBURUAK



- Haur eta gazteen artean euskararen erabilera eta komunikazioa bultzatzea.
- Aisialdian zein eskola orduetan, euskaraz gozatu eta komunikatzeko baliabide berriak eskaini eta lantzea.
- Hezkuntza formalaren barruan, hezkuntza ez-formalean erabiltzen diren baliabideak suspertzea.
- Hezkuntza formaleko euskara ikasgai gisa duen irudia aldatzea.
- Aisialdian erabiltzeko, kantu-jolasaren baliabidearen ezagutza handitu eta eguneratzea.
- Euskara elementu erakargarri bilakatzea.
- Kantu – jolasaren bidez, umearen parte-hartzea bultzatzea eta trebetasunak garatzea.

ANTOLAKETA



- Iraupena: 2 ordu, egun bakarrean.
- Parte-hartzaile kopurua: 20 hezitzaile gehienez

Bi orduko ikastaro honetan, hau izango da jarraituko dugun planteamendua:

- Abestien garrantziaren sarrera teorikoa
- Abesti desberdinen ezagutza
- Egoeren arabera abestia zelan moldatu
- Abesti bakoitza momentu konkretu batera mugatu
- Abestien praktika
- Ideia trukaketa eta zalantzak argitzea
- Abestien inguruko ekintza dinamikoa

Amaitzeko, ikasitakoari jarraipena emateko, erabilitako power point dokumentua emailaz bidaliko zaie parte-hartzaileei abestien letrekin, eta baita CD bat ere doinua eta erritmoa erabilgarri izateko.

AURREKONTUA



2 orduko ikastaroa (2 hezitzaile)

200 €

Oharrak:

- * Prezio honi BEZ gehitu behar zaio (%10)
- * Durangaldean egiten diren ikastaroetarako garraioa sartuta dago aurrekontuan. Hortik kanpora egiten direnei, gainontzeko kilometroak gehituko zaizkie.
- * Kontratatzailerak jarri beharreko baliabideak: instalazioak, mahai eta aulkiak, proiektorea eta pantaila.
- * Berbarok jarriko dituen baliabideak: material didaktikoa (power point, fotokopiak eta CDak), ordenagailua eta bestelako materiala (kartulinak, folioak, errotuladoreak, boligrafoak...).
- * Ikastaroaren zabalkundea eta izen-ematea kontratatzailearen esku gelditzen dira.

HARREMANETARAKO :

946202540 / 676468121

gazteak@berbaro.com

www.berbaro.com

